

URTEKO MEMORIA 2023



La  Salle

Toki xume askotan jende xume askok gauza xume asko eginez, mundua alda dezake

AURKIBIDEA

1. PATRONATO JUNTA	3
2. KUDEAKETA TALDEA	4
3. DELEGATUAK	5
4. URTEKO KANPAINA	6
5. KUDEAKETA TALDEAREN GIZARTE ERALDAKETARAKO BESTE JARDUERAK	8
6. ORDEZKARITZEN GIZARTE ERALDAKETARAKO BESTE JARDUERAK	13
7. TANDANACUI	32
8. UDAKO BOLUNTARIOTZA <i>- HELDUAK</i>	33
9. PROIEKTUAK	35
10. MEMORIA EKONOMIKOA	46
11. ERANTZUKIZUN SOZIAL KORPORATIBOA	48
12. ERAGIN POLITIKOA	49
13. HARREMANAK	50
14. PUBLIKAZIOAK <i>- SUSTATU</i> <i>- GABONETAKO POSTALAK</i>	51

1 PATRONATU JUNTA

Bilerak



Patronatu Junta 2023 urtearen hasieran pertsona hauek osatzen zuten:

- Jose Roman Perez Conde, Presidente
- José Antonio Villalabeitia Vitoria, Presidenteorde
- Fernando Casas Gallego, Diruzain
- Jose Mari Calvo Cilla, Idazkari
- Maite Pardina Larrate, Batzordekide
- Itziar Muniozguren, Batzordekide
- Ana Maria Ruiz, Batzordekide

Urtean zehar Juntak lau bilera egin ditu Fundazioaren Egoitzan. Landutako gai garrantzitsuenak honako hauek izan dira:

-Martxoaren 14ko bileran: 2022ko diru-kontuen baiespena. Salletar GGKEen Nazioarteko Plataforma sortzeari buruzko informazioa. 2023 udako nazioarteko boluntariotza proiektuen egoera. 2022ko Memoriaren eta Sustatu 28ren aurkezpena.

-Ekainaren 19ko bileran: 2022-2023 ikasturteko Planaren ebaluazioa. Larrialdi-egoeratako jardueraren protokoloa. "Salletar GGKEa eta Hezkuntza Sarearen arteko erlazioaren Gida Plana". Pertsona aldaketak Patronatu Juntan. 2023-2024 ikasturteko bileren egutegia.

-Irailaren 27ko bileran: Juntako Presidenteorde berriaren aurkezpena. 2023 urtarrila-abuztuko kontuen aurkezpena. 2023-2024ko Urteko Planaren aurkezpena. Akwabako udako boluntariotzari buruzko informazioa. 2024ko udako nazioarteko boluntariotzaren aurreikuspenak.

-Abenduaren 18ko bileran: 2024ko aurrekontuaren baiespena. 2024ko udarako prestatuko diren Nazioarteko Proiektuei buruzko informazioa. Lankidetzaren Proiektuen egoera 2023aren amaieran. Proyde-Proega Fundazioak Bilbon ordezkaritza bat duela ofizialki baieztatzea.

2 KUDEAKETA TALDEA

Bilerak

Kudeaketa Taldea 2023. urtean pertsona hauek osatu dute:

- José Antonio Villalabeitia Vitoria, Zuzendari
- Jose Mari Calvo Cilla, Idazkari
- Laida Pino Gomez, Teknikari
- Jose Manuel Agirrezabalaga Odriozola, Boluntario

Taldea hamabostero biltzen da hausnarketak egin eta zereginak antolatzeko eta koordinatzeko.



3 DELEGATUAK

Bilerak

Delegatuen bilerak, ohi bezala, hiru aldiz egin ziren urtean zehar. Lehenengoan eta bigarrena, urtarrilean eta maiatzean, batzuk Proegaren Egoitzan elkartu ziren eta besteek bideokonferentziaz parte hartu zuten. Hirugarrena, San Asension egin zen, arratsaldean, goizean Pastoral Delegatuekin batera egindako topaketaren ondoren. Hara aztertutako gai garrantzitsuenak:

-Urtarrilaren 23ko bileran Proegaren Urteko Planaren Ordezkaritzeari dagokienaren analisia egin zen, eta komentatu ziren Google-galdetegiari Ordezkaritzek emandako erantzunak. Eta zenbait informazio eman zen, besteak beste 2022ko proiektuetarako jasotako dirulaguntzena eta 2023ko udako boluntariotzaren egoerarena. Egin zen, halaber, 2023ko gabonetako postalak egiteko banaketa.

-Maiatzaren 8ko bileran bukatzean dagoen ikasturtean egin berri den Sentsibilizazio Kanpainako alderdi azpimarragarrienak partekatu ziren eta datorren urtekoari buruzko informazioa aurreratu zen. Era berean, udako boluntariotza prestatzeko egin diren bi topaketen berri eman zen eta bidalketa-topaketak non eta noiz egingo ziren ere azaldu zen. Partekatu ziren, halaber, delegatu berriekin tokian-tokian kudeaketako kideek izandako bilerak, elkarren ezagutza eta talde zentzua areagotzeko. Andoain, Beasain, Donostiako La Salle, Sestao eta Zumarragakoekin egin ziren.

-Irailaren 21eko bileraren hasieran nor bere egoera eta kezka nagusiak azaldu zituen. Kezken artean bi nabarmendu ziren: denbora faltarena eta bidezko merkataritza ondo eraman ezina webguneak ez duelako behar bezala funtzionatzen. 2023-2024 ikasturteko Planaren aurkezpena egin zen eta 2023 urteko Memoria nola burutu azaldu zen. "Sustatu" triptikoaren erabilerari buruz hausnarketa egin zen etekina atera diezaiozun; horren ondorioz hurrengo bileran erabakiko da paperean atera ala ez eta zein kopurutan.

4

URTEKO KANPAINA

Gizarte eraldaketarako jarduerak

Urtero, Proyde-Proegak Sentsibilizazio Kanpaina bat sustatzen du. Kanpainako orientabide eta materialak “Arlepeko Salletar GGKEen koordinakundearen” (Proyde, Proyde-Proega, Proide, Edificando eta Proideba), La Salle Solidarietà Internazionale Onlus, eta Sed (Maristak), Proclade-Yanapay eta Proclade Fundazioa (Klaretarrak) GGKEen arteko Prestaketa Taldeak eginak dira. Kanpaina hau tokian tokiko Ordezkaritzetan egiten da, Euskadiko Salletar ikastetxe eta zentroetan txertaturik dauden Ordezkaritzetan, alegia.

Hauek dira gure giza multzoari, ikastetxe eta hezkuntza erakundeetako ikasle eta erabiltzaileen kopuruari, buruzko datuak:

IKASTETXEAK	UDALERRIAK	IKASLE KOPURUA
La Salle Berrozpe	Andoain	1.126
La Salle	Beasain	642
La Salle	Bilbo	1.315
La Salle	Donostia	912
La Salle San Luis	Donostia	329
La Salle Isasi	Eibar	472
La Salle Azitain	Eibar	327
La Salle Irun	Irun	1.291
Begoñako Andra Mari	Sestao	705
La Salle San José	Zarautz	596
La Salle Legazpi	Zumarraga	488
SOZIO-HEZKUNTZAKO OBRAK	UDALERRIAK	ERABILTZAILEAK
Elkarbanatuz	Bilbo	1.709
Artizar	Sestao	98
EGOITZAK		
La Salle Residencia Universitaria	Donostia	94
GUZTIRA		10.104



4

URTEKO KANPAINA

Gizarte eraldaketarako jarduerak

Kanpainan, ikasleekin, irakasleekin, gurasoekin eta salletar elkarteekin erabiltzen ditugu Prestaketa Talde horrek egindako material didaktikoak. Proegak euskarara itzultzen ditu eta egokitzen material horiek.

Kanpaina lehorreko bizitzari lotutako problematikan oinarritu da, Garapen Iraunkorreko 15. Helburuan (15. GIH) oinarrituta.



LEHORREKO BIZITZA BABESTEA, LEHENGORATZEA
ETA MODU JASANGARRIAN ERABILI DADILA
SUSTATZEA, BASOAK MODU JASANGARRIAN
KUDEATZEA, BASAMORTUTZEAREN AURKA
BORROKATZEA, LURREN DEGRADAZIOA INBERTITZEA
ETA BIODIBERTSITATEAREN GALERA GELDITZEA.



Ikasturteko kanpainaren goiburu motibagarria hau izan zen: "Lurra bizitza da. Zaindu dezagun!"

Gure planetaren azalerarekiko kezka oinarri harturik, hainbat hildo landu dira. Basoek, bizitzarako duten garrantzia azpimarratu da. Kliman duten eragina funtsezkoa baita, arnasten dugun airearen kalitatearen bermatzaile eta gure hirietan kontsumitzen den edateko uraren heren baten hornitzailea ere bada.

Bestetik, baso-soiltzea dago, hau da, zuhaitz-azalera suntsitzea. Oso fenomeno kaltegarria da, ia beti gizakiaren ekintzak eragindakoa, batez ere zuhaitz asko kontrolik gabe mozteagatik. Deforestazioak ingurumenean duen eragina negargarria da, eta horrek ekonomian eta gizartean dituen ondorioak ere oso txarrak dira.

Lehorreko ekosistemen erabilera iraunkorrarekin lotutako beste arazo bat basamortutzea da, lehortearekin batera nekazaritzarako erabilezin bihurtzen baitira garai batean landatzeko modukoak ziren lur-azalera erraldoiak. Pertsona asko bizirauteko nekazaritzaren mende daudenez, basamortutzeak oso ondorio kaltegarriak ditu populazio ezberdinetan.

Fenomeno horiek guztiak oso kaltegarriak dira, biodibertsitatea mehatxatzen dutelako eta pertsonen bizi-baldintzak degradatzen dituztelako, haien biziraupena arriskuan jarritz edo duintasunik gabeko baldintzetan gaizki bizitzera kondenatuz.

5

KUDEAKETA TALDEAREN

Gizarte eraldaketarako beste jarduerak

PROYDE-PROEGA

● Urtarrilaren 15ean, Proyde-Proegako boluntarioa den Periko Iesuko parrokian izan da boluntariotzaren aurkezpena egiten. Bere esperientzia nolakoa izan den azaltzeaz gain, bertako jendearen bizimodua nolakoa den ere elkarbanatu zuen.



● Urtarrilaren 19an Andoaingo Udalean egon ginen, 2023an gauzatuko diren lankidetzeta proiektuen aurkezpena egiten andoaindarrek ezagut ditzaten.



● Urtarrilaren 25ean, Beasainen egon ginen Bidezko Merkataritzaren inguruan solasten. Bangladesheko haur batzuen azalean jarri eta euren egunerokotasuneko gorabeherak bizitzeko aukera izan genuen.



5

KUDEAKETA TALDEAREN

Gizarte eraldaketarako beste jarduerak

- Maiatzaren 3an Proideba-ko lankidekin elkartu ginen, ONGD bakoitzak egiten duen lana ikusi eta harremanak estutzeko baliagarria izan zen.



- Maiatzaren 7an boluntariotzaren azoka ospatu genuen Zarautzen, Gizaldek eta Zarauzko Udalak antolatuta.



- Ekainaren 2an Gipuzkoako udako boluntarioen bidalketa ospatu genuen. Proegaren eta La Salleren babesa helarazteko gure boluntarioei.



5

KUDEAKETA TALDEAREN

Gizarte eraldaketarako beste jarduerak

- Ekainaren 10ean, Donostiako Bidezko Merkataritza Taldearekin, Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna ospatu genuen Donostiako Bidezko Merkataritza taldearekin. Donostiako Gipuzkoa Plazan azoka bat antolatu genuen, jolasak, serigrafia tailerra, musika, produktuen dastatzea... zeudelarik.



- Ekainaren 15ean Zaragozako udako boluntarioen bidalketa ospatu genuen. Proegaren eta La Salleren babesa helarazteko gure boluntarioei.



- Uztailaren 19an Ludoteka Zorionakekin batera egon ginen, udalekuetako haurrei Bidezko Merkataritzaren inguruan eta uraren garrantziaren inguruan solasteko.



5

KUDEAKETA TALDEAREN

Gizarte eraldaketarako beste jarduerak

- Irailaren 22an, Francis Goze Anaiaren bisita izan genuen. Boli Kostako Akwaba etxearen zuzendaria da, gure arteko harremana sendotzeko baliagarria izan zen. Sortu zenetik laguntzeko dugun konpromezua eskertzera ere etorri zen.



5

KUDEAKETA TALDEAREN

Gizarte eraldaketarako beste jarduerak

0 POBREZIA

Pobreziaren aurkako nazioarteko egunaren inguruan (urriak 17), 0 Pobrezia plataforman parte hartzen dugun GGKEEK aste bat antolatu genuen pobrezia desagerrarazteko hainbat jarduerarekin:

Moda azkarraren benetako kostua" lelopean, bizimartxa eta zine-foro batekin hausnarketa eragin genuen moda azkarraren inpaktuaren inguruan.

Moda azkarraren industria jantzien produkzio masiboan oinarritzen da. *Bigarren industria kutsagarriena da, energia fosilen atzetik.*

Horretarako, hainbat ekintza egin dira, Zine Foro bat izan genuen La Caja filmaren inguruan. Prentsaurrekoa ere egin genuen eta bertan desfile batekin modak baldintzatzen dituen egoerak salatu genituen. Autobusetan ere kartelak ipini genituen donostiarren sentsibilizaziorako. Guerrilla kanpaina bat ere gauzatu genuen, Donostiako estatuak arropa zaharrekin jantziz. Azkenik, asteari amaiera eman genion Bizimartxa batekin.



6

ORDEZKARITZEN

Gizarte eraldaketarako beste jarduerak



ANDOAIN

La Salle Berrozpe

PROEGA ASTEA

Data: 2023/04/17 - 2023/04/28

Uraren inguruko kontzientziazio lana egin zen lehenengo egunetan (kartelak jarri, uraren erabilera ikastetxean...). Ikasle batzuk gelaz gela ibili ziren kanpainaren berri ematen. Azken bi egunetan DBH 1eko ikasle batzuek bizkotxo, pintxo salmenta egin zuten diru bilketan laguntzeko.



HERRIAN EGINDAKO EKINTZAK - GOXO BILKETA

Data: 2023/12/16

Eguberrietarako urteroko Goxo bilketa egin da. Andoaingo Caritasen bidez, herriko familiei laguntzeko egitasmoa burutu da. Hasteko, ikastetxean egin da Goxo-bilketa eta abenduaren 16an, amaiera emateko, herri mailan. Caritaseko ordezkariak etorri dira eta eskolan eta herrian bildutakoa eman zaie.

GABONETAKO POSTALAK

Data: 2023/12/14

LH5eko ikasleak Andoaingo Zaharren egoitzara joan eta bertako aitona-amonari mezu politez beteriko postalak eramanez zizkieten. Beste alde batetik, urtero egiten den bezala, Ikastetxeak berak zorientzeko erabili ditu postalak.



ANDOAIN

La Salle Berrozpe

JUSTIZIA ETA BAKEAREN ASTEA

Data: 2023/02/06 - 2023/02/10

LHko ikasle eta irakasleok ikastetxean, etxean eta herrian bakean bizi gaituzen maila bakoitzak hartu dituen konpromezuak azaldu eta elkarrekin abestuz egin da ekitaldia. Koloretako txoritxoak egin ditugu konpromezu horiek adierazteko. DBHtik gora, lanketa geletan egin da eta Bakearen inguruko esaldiak idatzi eta jaso dira.



SAHARAREN ALDEKO KANPAINA

Data: 2023/01/30 - 2023/02/09

Urtero bezala, Andoaingo Udalak proposatzen duen ELIKATU ITXAROPENA Sahararen aldeko kanpainan parte hartu dugu ikasle eta familien laguntzarekin bilketa antolatuz. Asteazken zehar bideo, argazki, dokumentu... ezberdinak landu dira geletan goizeko gogoetetan edo tutoretza saioetan.

0 POBREZIA

Data: 2023/10/17

Andoaingo Caritas taldeko kideak izan genituen ikastetxean, lehen batxilergoan dauden ikasleei boluntariadotza zeinen beharrezkoa den azaltzen. Andoainen eta beste herrialdeetan dituen programa ezberdinen berri eman zien eta beraien lankidetzak eskaini nahi duten ikasleei ere zein programetan izen eman adierazi zien.



BEASAIN

La Salle

PROEGA ASTEA

Data: 2023/03/13 - 2023/03/17

Irakasle, familia eta ikasleekin honako jarduera hauek egin dira.

- Aurtengo leloa landu da eskoletan, triptikoaren eta kartelaren laguntzarekin.
- Goizeko Gogoeta eguneroko leloaren inguruan egin da.
- "Bizkotxo Solidarioa" egin da.
- Urtero bezala, Gabonetako postalekin lagun ikusezina egin da ikasle eta irakasleen artean.



BIDEZKO MERKATARITZA

Data: 2023/05/22

Familia eta ikasleentzako produktuak jarri dira salgai La Salle egunean. Arrakasta handia izan du, dena saldu zen.



JUSTIZIA ETA BAKEAREN ASTEA

Data: 2023/02/01

Aste honetan zehar Arangoiti zaharren egoitza, gautena, ONCE, Elbarrituen Kirol Elkartea, Ordiziako GUREAK, Atzegi, Caritas eta ATERPE erakundeen bisitak izan genituen. Asteari amaiera emateko ekintza sinbolikoa antolatu zen ikastetxearen patioan.

BILBO

La Salle

PROEGA ASTEA

Data: 2023/01/24 - 2023/01/31

Egunero goizeko otoitz batekin hasi, eta arlo batzuetan ere ekintza bereziak egin ziren, adinaren arabera. Aste horretan zehar urteko proiektua aurkeztu zen eta familiei diru-laguntza emateko gutun - azala bidali genien. Bukatzeko, txokolatada solidarioa ospatu zen ikastetxeko patioan. Gutun-azalekin 3.318,18€ lortu genuen.



HERRIAN EGINDAKO EKINTZAK - LASTERKETA SOLIDARIOA

Data: 2023/04/23

Deustun gure Proegaren aldeko lasterketa solidarioa berriz antolatu genuen. Arrakasta handia izan zuen, ia 800 korrikalari parte hartuz eta 3.000€-ko irabaziarekin.



BILBO

La Salle

BIDEZKO MERKATARITZA

Data: urte guztian zehar

Irakasleen artean produktu hauen erosketa egiteko ohitura mantendu dugu. Proegako Bilboko online dendan ere bidezko merkataritzako produktuak saldu dira.

Horretaz gain, ikasturtean zehar izan ditugun momentu berezi batzuk aprobetxatu dira (Lasterketa Solidarioa, Salleko Jaiak, Fair Friday, Gabonetako Merkatua...) bidezko merkataritza postua jartzeko, ikasleen artean erosketa mota hau sustatzeko asmoz eta Tandanacuin parte hartzen duten ikasleek antolatua.



TANDANACUI TALDEA

Data: urte guztian zehar

Tandanacui talde bat ibiltzean hasi zen ikasturte hasieran. 60 gazte inguru eta 9 begiraleekin, ikasle-ohiak direnak, bi astero elkartzen dira pobrezia, justizia, bakea eta abarri buruzko jolasak eta sentsibilizazio jarduerak aurrera eramateko. Proega Delegazioarekin kolaboratu dute irailtik aurrera antolatutako ekintzak aurrera eramateko.



DONOSTIA

La Salle

PROEGA ASTEA

Data: 2023/03/20 - 2023/02/25

Aste honetan bi ekintza nagusi egin dira Proegaren inguruan lanketa berezia egiteaz gain goizeko gogoetekin eta tutoretza saioekin.

Bizkotxo solidarioa

Aste honetan zehar maila guztietako ikasle eta irakasleok etxetik egindako bizkotxoak ekarri genituen jolas orduan besteei saldu eta diru bilketa egiteko. Ikasleak gogotsu egoten dira, arrakasta handia izaten du eta bildutako dirua proiekturako erabili genuen.

Bazkari solidarioa

Guraso, irakasle eta eskolako pertsona guztiek parte hartu genuen bazkari honetan. Denak batera bildu eta ekintza desberdinak antolatu ziren, bazkaria, zumba, jolasak... Ikasleak laguntzen ere aritu ziren eta egun bikaina pasa genuen.



BIDEZKO MERKATARITZA

Data: urte guztian zehar

Bidezko Merkataritza eskaerak irakasle gelan eta ekintza berezietara mugatu dira. Irakasleok irakasle gela desberdinetan produktuak izan eta elikagaiak konsumitu dira eta beste kasu batzuetan LA SALLE EGUNEKO taberna edo postuan produktuak salgai ere jarri ditugu.

DONOSTIA

La Salle

JUSTIZIA ETA BAKEAREN ASTEA

Data: 2023/01/23 - 2023/01/30

Aste honetan gogoeta bereziak, batxillergoan hitzaldia eta eskola guztiaren artean keinu bat egin zen. Patioan bildu ginen gela guztietako eta eskolan lanean gabiltzan guztiak, musika lasaia eta konpromezu hitzak mikrofono bidez elkarbanatu odoren, etapa bakoitzeko bi ordezkari zuhaitz bat birlandatu eta pakearen alde urtean zehar zaindu eta maitatzeko konpromezua hartu genuen.



TANDANACUI TALDEA

Data: urte guztian zehar

Tandanacui taldea COVID-aren ondoren alde batera gelditu zen eta berreskuratzeko saiakera bat egin zen 2023an. Ikasle asko apuntatu ziren eta ez genuen erreza ikusten denekin nola moldatu baina talde txikitik KILLO PILA, PROEGA asterako, BAZKARI SOLIDARORAKO... bideoak, pinak eta hainbat ekintzetan lagundu dute.

BOKAZIO ASTEA

Data: 2023/09/18 - 2023/09/22

Azken urteetan ITBren ondorioz indarra galdu duen arren Bigarrez Hezkuntzan ospatu da bereziki. Gogoeta bereziak egin dira, tutoretza eta erlijioan pelikula eta gaiaren inguruko lanketa, BTX1en hitzaldia izan zuten ATZEGIko langile baten eskutik eta BTX2n mahaingura izan zen 4 pertsonak beraien bizitzaren testigantza emanaz.



DONOSTIA

La Salle San Luis

JUSTIZIA ETA BAKEAREN ASTEA

Data: 2023/01/23 - 2023/01/27

Ekintza esanguratsuena azken egunean egin genuena izan zen, aste osoko lana borobildu zuena. Bakea eraikitzen dugu... Nola eraikitzen dugu guk bakea? Talde kooperatiboetan adreilu batean idatzi zituzten haien erantzunak eta bakea hitza denon artean osatu genuen. Bestalde, aipatzekoa da ikastetxeko DBHko ikasleek eskolako txikiekin haiek egindako lanak partekatzen dutenean.



BIDEZKO MERKATARITZA

Data: 2023/03/06 - 2023/03/10

Eskolan bertan, arratsaldeko azken momentuan, Tandanacuiko taldekoek antolatzen zuten azoka bat. Bertan, bidezko merkataritzako produktuak saltzen zituzten eta lortutako beste bigarren eskuko produktu batzuk (liburuak...) eta haiek egindako produktuak (eskumuturrekoak, orri-markagailuak...) ere saltzen zituzten.

PROEGA ASTEA

Data: urte guztian zehar

Aste honen barruan Proyde -Proegako kanpainaren helburua lantzeaz gain, Tandanacui taldekoek hamaiketako eta merienda solidarioa prestatu zuten, bai errekreo garaian bai arratsaldeko irteran saltzeko. Lortutako dirua kanpainarako zen.



DONOSTIA

La Salle San Luis

GABONETAKO KANPAINA

Data: 2023/12/04 - 2023/12/14

Gabonetako kanpaina baino lehen, Tandanacuikoak klase guztietatik pasa ziren aurtengo ekintza aurkezteko eta adierazteko zer produktuen beharra zegoen. Horretarako prestatu zituzten kartel batzuk adieraziz janariaren bilketa noiz egingo zen eta zer produktu ekarri behar zituzten. Kanpaina barruan ia-ia egunero pasatzen ziren gauzak biltzera. Cáritas-ekin lan egiten zuten etainguruko bi parrokiaren artean banatu zen bildutakoa.



TANDANACUI TALDEA

Data: urte guztian zehar

Hilabeteetan behin bildu ziren gai ezberdinak lantzeko baina ekintzaren bat aurrera atera behar zutenean behar ziren aldietan biltzen ziren. Lan ederra egiten dute eskolan eta une berezietan.

HERRIAN EGINDAKO EKINTZAK - ELIKAGAI BILKETA

Data: urte guztian zehar

DBH 3. Mailan, SEIN programaren barruan beste kanpaina bat antolatu zuten ikasleek Elikagaien Bankuarekin batera. Hurrengo argazkian lortutakoa entregatzen.



EIBAR

La Salle

PROEGA ASTEA

Data: 2023/03/06 - 2023/03/19

Martxoaren 10ean joko solidarioak egin genituen. Tandanacui taldeak antolatu zituen eta ikasleak errefuxiatu, etorkin, bidezko merkataritza eta bestelako gaiekiko sentsibilizazioa garatzea zuten helburu.

Proega Egunarekin (martxoak 18) amaitu zen. Egun horretan, gure GGKEaren urteko helburuak (Sustatu aldizkaria banatuz) aurkezteko, Bidezko Merkataritzako produktuak saltzeko eta jolas kooperatiboak antolatzeko aprobetxatu genuen, Eibar Tandanacui begiraleen laguntzarekin. Izartxo Aisialdi taldekoek ere parte hartu zuten txikientzako jolasak antolatzen.



TANDANACUI TALDEA

Data: urte guztian zehar



Posible izan da Tandanacui taldeen deialdia egitea. Eta erantzuna oso positiboa izan da. Irailaren amaieran hasi genituen asteroko bilerak: Batxilergokoak, asteartean eta DBHkoak, asteazkenetan. Pastoral Sailaren bilerak bi taldeen arteko koordinaziorako esparru lez balio zuen, ikastetxeko kanpainetan eta sentsibilizazio jardueretan denon artean laguntzeko.



EIBAR

La Salle

BIDEZKO MERKATARITZA

Data: urte guztian zehar

Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna dela eta, gure GGKEak, Proegak, gure herriko beste Egoaiziarekin lankidetzan, Bidezko Merkataritzaren eta garapen iraunkorraren aldeko informazio-jardunaldi bat antolatu genuen.

Eibarko Udalaren dirulaguntzari esker, ludoteka baten zerbitzuak kontratatu ahal izan genituen. Ludoteka horrek haurren gozamina eragin zuen, oso entretenigarriak eta hezigarriak izan ziren jarduerekin. Festa giroa sortu zen, eibartarrei gure proposamenak egiteko. Gainera, bi GGKEek zozketa solidarioa eta Bidezko Merkataritzako produktuen salmenta antolatu genuen.

Bestalde, eskolan Bidezko Merkataritzako produktuen salmenta ere sustatzen da, eta Proega astean ikastetxearen atarian jartzen da gurasoek eta ikasleek eros dezaten.



ELIKAGAI BANKUA

Data: urte guztian zehar

Elikagaien Bankuko boluntarioen eskaerari erantzunez, azaroaren 24ean, ostirala, Tandanacui talde bat gure herriko Ipuruako Eroskira joan zen. DBHko eta Batxilergoko taldeetan antolatu ginen, 14: 00etatik 19: 00etara. Oso esperientzia positiboa izan zen, eta gure ikasleek eskuzabaltasuna, poza eta erantzukizuna erakutsi dituzte.



IRUN

La Salle

JUSTIZIA ETA BAKEAREN ASTEA

Data: 2023/01/30 - 2023/02/03

Urtero legez, eskolako Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko lehen ikasturtetako ikasleek bakearen astea ospatu dute, ekintza ezberdinak jorratuz eta azken egunean, herriko beste hainbat ikastetxeetako ikasleekin batera, azken ospakizun bat gauzatu zen San Juan plazan, bakearen usoa askatuaz aste osoko ekintzen itxiera moduan.



PROEGA ASTEA

Data: 2023/03/20 - 2023/03/29

Ikastetxean lantzen dugun kanpainarik esanguratsuenetarikoa izaten da Proega astea, izan ere, etapa guztietako ikasle zein irakasleek hartzen dute parte bertan. Adin bakoitzari egokitutako jarduerak jorratu ziren 7 egunetan zehar, Garapen Jasangarrirako Helburuak zein Proegari zuzenean lotutako Tambingueko proiektua landuaz.

Azken urteetan egiterik izan ez zen bazkari solidarioa berreskuratu genuen, Proegako udako boluntariora batean parte hartu zuen pertsona bat gonbidatu genuen bere testigantza emateko eta azkenik, ondorengo argazkia atera bertaratutakoek.

Bazkariaren, bidezko merkataritzako loteen, LHko zenbait ikasleren proiektu baten eta beste zenbait ekintza puntualen bitartez 3000€ bildu ziren proiektura bideratzeko.



IRUN

La Salle

BIDEZKO MERKATARITZA

Data: urte guztian zehar

Beste urte batez Bidezko Merkataritza sustatu nahi izan dugu ikastetxean eta oraingoan ere, Proega astea baliatu dugu horretarako. Bazkari Solidarioa batxilergotik aurrerako ikasleei zuzendua dagoenez, Bidezko Merkataritzako loteak saldu ditugu, 10€tan (kartelean agertzen den moduan). Oso harrera ona izan du aurtengoan ere, beraz, etorkizunean bide berdinetik jarraitzeko asmoa dugu. Aste horretan 2600€tik gora bideratu ziren Bidezko Merkataritzako produktuetara.



KILO KANPAINA

Data: 2023/12/11 - 2023/12/20

Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin elkarlanean abiatu genuen abenduan gauzatzen den kanpaina, azken urteetako esperientzia onari jarraiki. Ikastetxeko etapa guztietan lantzen den jarduera izanik, indar handia eman nahi izaten diogu, eskola guztia mugiarazteko asmoz, baina aurtengoan pasaden urteekin alderatuz beherakada sumatu dugu, arrazoi zehatzik ezagutu gabe. Hala ere, 365 kilo jaso genituen eta eskertza mezua bidali genien familia guztiei, aurrekoetan baino zertxobait gutxiago bada ere, laguntzen jarraitzea garrantzitsua baita.

IRUN MUNDUAREKIN LANKIDETZAN

Data: 2023/10/29

Urrian ospatu zen Irungo eta inguruko herrietako GGKE ezberdinekin gauzatzen den azoka. Irungo Colon pasealekuan izan zen eta dozenaka elkartek aurkeztu ahal izan zituzten haien proiektu eta helburuak, bertaratzen ziren guztiei informazioa zabalduaz.



SESTAO

La Salle

PROEGA ASTEA

Data: 2023/05/15 - 2023/05/19

Aste honetan bi ekintza nagusi egin dira Proegaren inguruan lanketa berezia egiteaz gain goizeko gogoetekin eta tutoretza saioekin.

Bizkotxo solidarioa

HH, LH eta DBHko ikasle eta familiek bizkotxoak egin dituzte eta hamaiketako orduan jaten ditugu euro baten truke. Lortutako dirua proiektuari laguntzeko doa. Pozik ibili ziren ikasle guztiak bizkotxoen zapore desberdinetaz gozatzeko.



BIDEZKO MERKATARITZA

Data: hilabetearen behin

Hilabetearen behin bidezko merkataritzako produktuak saltzen ditugu eskolako patioan. Batez ere, umeentzako txokolatezko barritak eta zukuak saltzen ditugu askari moduan jateko. Familiei ere gailetak eta txokolate tabletak asko gustatzen zaizkie. Irakasle eta familia batzuek ere eskaera pribatuak egiten dizkigute hurrengo azoka egunean erosteko.




SESTAO

La Salle

SASKIAK

Data: 2023/02/15 eta 2023/12/19

Bidezko merkataritzako produktuekin zazkiak egiten dira eta boletoak saldu egiten genituen. Argazkian ikusten diren zazki zoragarriak lortu zituzten. Lortutako dirua proiektuari bideratuta doa. HH, LH eta DBHko ikasle eta familiek janaria ekartzen dute eta janari horrekin gabonetako zazkiak egiten ditugu. Abenduan zehar boletoak saltzen ditugu euro baten truke eta gabonetako oporrak heltzen direnean zozketa bat egiten dugu, irabazleek zazkia eramaten dute. Lortutako dirua proiektuari bideratuta doa.



BIGARREN ESKUZKO JOSTAILU AZOKA

Data: bigarren hiruhilabetean

HH eta LHko familiei eskatu genien ez zituzten erabiltzen edo botako zituzten jostailu, liburu, puzzle, etab. eskolara ematea bigarren eskuzko azoka bat antolatzeko. Gabona aurretiko epealdian eskatu genien badigulako olentzerok eta errege maguek opari berri asko ekartzen dituztela eta etxeetan garbiketa egiten dutela.

Tandanakuiko taldearen laguntzaz ekarri zutenari begirada bat eman eta prezio txartelak jarri genituen. Bigarren hiruhilabetean zehar egun desberdinetan eskola ondoren azoka egin genuen. Aukera polita opari berriak erosteko aukera ez dutenentzat eta erabiltzen ez diren gauzei beste erabilera bat emateko. Lortutako dirua proiektuari eman zen.

ZARAUTZ

La Salle

PROEGA ASTEA

Data: 2023/03/13 - 2023/03/17

Proega astean hainbat ekintza egin ditugu, bizkotxo solidarioa eta jolas kooperatiboak hain zuzen ere. Bertan jasotakoa aurtengo proiektura bideratu da.



TANDANACUI ETA JENDE XUMEA

Data: urte guztian zehar

Tandanacui taldea martxan dago zentroan: DBH 4. mailako urteko 6 gazte daude bertan. Astero biltzen dira, ostiral arratsaldez. Jende Xumeako gazte bat badago, eta datorren udako bidaia prestatzen dabil bere taldearekin.

SENDIAREN EGUNA ETA JAI SOLIDARIOA

Data: 2023/05/27 // 2023/12/16

Sendiaren egunean Bidezko Merkataritzako denda jartzeaz gain, bizkotxo eta kafe solidarioaren salmenta egin genuen. Jai solidarioan LH 1.go mailako gurasoek jai solidarioa antolatu zuten, eta bertan bildutakoa Proyde-Proegako proiektuari laguntzeko da.



ZARAUTZ

La Salle

BIDEZKO MERKATARITZA

Data: hilabetean behin

Bidezko Merkataritzako denda herriko plazan urtarriletik maiatzera, hileko larunbat batean. . Bidezko Merkataritzako denda eskolan ostiraletan, urritik aurrera. Zarauzko I. Boluntariorza azokan parte hartu, Proyde-Proega ezagutarazteko.



PROIEKTUAK

Data: urte guztia zehar

DBH3 mailan eta LHko mailetan: Aterpe, Saharautz, Caritas, Emaus, Aesleme, Elikagaien bankua, Aspanogi, Zaporeak, eta sareko obra diren Elkarbanatuz eta Artizar. Huetaz gain,



ZUMARRAGA

La Salle Legazpi

PROEGA ASTEA

Data: 2023/04/24 - 2023/04/28

Ohikoa denez, kanpainaren lehen aurkezpena Gabonetako postalen salmentarekin egin genuen.

Ikasturte honetan, 23-24 Gabonetako Kanpainarako, proiektuaren berri eman dute DBHko 4. mailako bi ikasle bikotek, ikasgelaz ikasgela.

Proega Astea apirilaren 24tik 28ra izan zen. Aste honetan HH eta LHko zikloen araberrako globoen dinamikarekin hasi ginen, ikastetxea girotzen eta sentsibilizatzen. Aste osoan zehar, goizeko hausnarketak egin eta DBHko tutoretza-saioetan sentsibilizazio material ezberdinak landu dira.

Aste honetan egindako ekintza esanguratsuenak, “2. eskuko liburu azoka” eta “Bizkotxo eskuzabala” izan ziren. Liburu antolaketarako irakasle eta ikasleen artean bolondresak eskatu genituen, zereginak zerrendatuz eta taulan izena emateko aukera emanez:



7 TANDANACUI

Taldeak

Tandanacui taldeak La Salle Ikastetxeetako 14 eta 20 urte bitarteko gazteek osatzen dituzte.

Aldizka elkartzen dira Garapenerako Lankidetzaren inguruko gaien gainean gogoeta egin eta horiei buruzko jarduera ezberdinak burutzeko.

Hezkuntza elkarteen sentsibilizazioan jarduten dute, horretarako kanpaina solidarioetan parte hartuz, ikastetxean bertan nahiz kanpoan antolatuak, informazio panelak jarriz eta ekitaldi solidarioak burutuz, hala nola, merkatu solidarioa, bidezko merkataritzako produktuen salmenta, bizkotxo solidarioaren eguna edo Elikagaien Bankuen laguntza.

Aurreko urteetako joerari jarraituz, hainbat talde daude martxan, batzuk urte osoan zehar eta beste batzuk uda aurretik edo ondoren. Hainbat dira Eibarren, Bilbon, Zarautzen, Sestaon eta Donostiako bietan: San Luisen eta Loiolan.





UDAKO BOLUNTARIOTZA

Helduak

Udako Helduen Boluntariotza

Pandemiaren ondorioz hiru urteko etenaldia egin ondoren, 2022ko udan helduentzako nazioarteko boluntariotza proiektuak berrabiarazi ziren, modu xumean, bi boluntariok parte hartu zuten proiektu bakar batekin. Hurrengo udan, 2023an, osasun-egoera normalizatzearekin batera, proiektu horiek erabat berrartu ziren.

Nabarmentzekoa da salletarren sektorean lanean ari diren bi GGKEen (Proyde-Proega eta Proyde La Rioja-Zaragoza) arteko lankidetzaren estua, helduentzako boluntariotza-proiektuak elkarrekin antolatzen baitituzte.

Prozesua 2022-23 ikasturtearen hasieran egindako deialdi batekin hasi zen, eta ondoren, 2022ko abenduan egindako informazio-bilera batekin. Parte-hartzaileek konpromisoa berretsi zuten, eta, ondoren, proiektuetarako taldeak eta helmugak ezarri ziren. Hiru proiektu zehaztu ziren Argentinan eta Bolivian, eta laugarren talde bat osatu zen Boli Kostan, Proiderek lankidetzan. Boluntarioek 2023ko otsailean parte hartu zuten prestakuntza-asteburu batean.



8

UDAKO BOLUNTARIOTZA

Helduak

Proiektuak 2023ko udan gauzatu ziren, hezkuntza, kirola, musika, jolasak eta salletar komunitateetako haurrentzako kultur jarduerak ardatz hartuta. Jarduera bereziak nabarmentzen dira, hala nola Argentinako adinekoentzako gimnasia ikastaroak, irakurketa eta antzerki ikastaroak Boliviako espetxe batean, eta Boli Kostako kanpamentu batean parte hartzea.

Proiektuak gorabehera esanguratsurik gabe garatu ziren, eta boluntarioek eta toki-erakundeek pozik zeudela adierazi zuten. Espero da aurtengo esperientzia etorkizuneko proiektuetan zerbitzu- eta gogobetetze-maila mantentzeko edo hobetzeko oinarri izatea.

Laburbilduz, pandemiak eragindako etenaldiaren ondoren 2023an helduentzako nazioarteko boluntariotzako proiektuak berraktibatzeak agerian uzten du erakundeen arteko konpromisoa eta lankidetzaz laguntza humanitaria eta hezitzailea emateko munduko hainbat lekutan. Planifikazio zehatzak, boluntarioen prestakuntzak eta jardueren gauzatze arrakastatsuek erakusten dute ekimen horiek eragin positiboa dutela tokiko komunitateetan eta parte-hartzaileengan. Aurtengoan ere, etorkizuneko edizioetarako oinarriak ezarri dira, eta, ziurrenik, elkartasun-loturak sendotzen eta artatutako eremuetan inpaktu iraunkorra sortzen jarraituko dute.



9

PROIEKTUAK

Gizarte eraldaketarako lankidetzak



9

PROIEKTUAK

Gizarte eraldaketarako lankidetzak

AMAITUTAKO LANKIDETZA PROIEKTUAK ERAKUNDEEN DIRU-LAGUNTZA ETA PROEGAKO FUNTSEKIN

Izenburua	Herraldea	Diru laguntza ematen duen erakundea	Diru sarrerak (2023)	Xehetasunak	Proiektuaren kostua (GUZTIRA)
Maia-q'eqchi's emakume nekazarien ahalduntze ekonomikoa eta politikoa.	Guatemala	Donostiako Udala	14.957,64€	Diru-laguntzaren %30a	53.283,83€
Profesionalki baztertuta dauden gazteak laneratzeko laguntzea, CTAP Zentroko materialak eguneratuz.	Txad	Zarauzko Udala	5.373,34€	Diru-laguntzaren %20a	46.633,65€
Haurren kalitatezko hezkuntzarako eskubidea indartuz.	Togo	Irungo Udala	10.000,00€	Diru-laguntzaren %50a	22.286,74€
Inklusioarekin eta partaidetzarekin eskola eraikiz.	Argentina	Eibarko Udala	24.970,00€	Diru-laguntzaren %20a	129.850,00€
Haurren kalitatezko hezkuntzarako eskubidea indartuz.	Togo	Zumarragako Udala	2.000,00€	Diru-laguntzaren %20a	21.153,44€
		Orona Fundazioa	1.000,00€	Diru-laguntzaren %100a	
		Andoaingo Udala	9.028,68€	Diru-laguntzaren %100a	
Togo iparraldeko haurrentzako kalitatezko hezkuntza programa indartzea, Las Sabanas eskualdeko Landa Eskolen Sareari lagunduz.	Togo	Irungo Udala	11.000,00€	Diru-laguntzaren %50a	23.585,47€
Siriako eta Libanoko haur eta gazte errefuxiatuei hezkuntza, garapena eta gizarteratzea erraztea eta hobetzea.	Libano	Caritas Bizkaia	15.000,00€	Diru-laguntzaren %100a	15.000,00€
Akwaba Etxeko funtzionamendu eta elikadura	Boli Kosta	Caritas Irun	15.000,00€	Diru-laguntzaren %100a	15.000,00€
GUZTIRA, diru-sarrerak 2023 (bukaturako proiektuak)			108.329,66€		

9

PROIEKTUAK

Gizarte eraldaketarako lankidetzak

MARTXAN DAUDEN LANKIDETZA PROIEKTUAK ERAKUNDEEN DIRU-LAGUNTZA ETA PROEGAKO FUNTSEKIN

Izenburua	Herrialdea	Diru laguntza ematen duen erakundea	Diru sarrerak (2023)	Xehetasunak	Proiektuaren kostua (GUZTIRA)
Kalean bizi diren haur zaugarrien eskubideak bermatzea, gizarteratu eta heziz.	Boli Kosta	Zumarragako Udala	6.400,00€	Diru-laguntzaren %80a	38.870,00€
Akwaba: egoera zaugarrian dauden haurrentzako harrera eta hezkuntza-laguntza, Abobo auzoa, Abidjan, Boli Kosta.	Boli Kosta	Zarauzko Udala	12.600,00€	Diru-laguntzaren %80a	28.870,00€
Emakume indigenak protagonista nekazaritzako elikagaien sistema komunitario jasagarrien eraikuntzan Zona Reinan, Quichen, Guatemalan.	Guatemala	Donostiako Udala	34.735,01€	Diru-laguntzaren %70a	66.055,52 €
Armstrong Fundazioa Eskola indartzea: energia-azpiegitura eta alfabetatze integrala genero-ikuspegitik eta giza eskubideetatik abiatuta, I. fasea	Argentina	Eibarko Udala	56.400,00€	Diru-laguntzaren %80a	106.315,78 €
Haur kalteberak babestea eta ahalduntzea Abiyango kaleetatik, gizarteratzen eta hezten laguntzeko.	Boli Kosta	Hondarribiko Udala	10.000,00€	Diru-laguntzaren %100a	13.700,00€
Abiyango kaleetako haur ahulen segurtasuna bermatzea eta eskubideak indartzea, haien gizarteratzea eta hezkuntza ardatz hartuta.	Boli Kosta	Irungo Udala	11.000,00€	Diru-laguntzaren %50a	27.550,00€
GUZTIRA, diru-sarrerak 2023 (bukatutako proiektuak)			131.135,01€		

9

PROIEKTUAK

Gizarte eraldaketarako lankidetzak

LANKIDETZA PROIEKTUAK PROEGAREN FUNTSEKIN BAKARRIK

Izenburua	Herrialdea	Proyde-Proegaren ekarpena
Akwaba etxea: kaleko hurren birgizarteratze familiar, sozial eta laboralean laguntzea.	Boli Kosta	15.500,00€
Kiri eta Kongoussi-ko ikasleei laguntzea.	Burkina Faso	1.000,00€
Hainbat proiektu solidariorik babesa.	Hegoafrika, Ginea Konakry...	5.000,00€
GUZTIRA (Proegaren funtsak)		26.500,00€




Herrialdea: Guatemala

Diru laguntza ematen duen erakundea:

Donostiako Udala

Proiektua: Landa eremuko maya q 'eqchi' emakumeen ahalduntze ekonomiko eta politikoa Zona Reina-n, Quiché II. Fasea



Proyde-Proegak urteak daramatza Guatemalako Prodesa elkartearen hezkuntza proiektuetan laguntzen. Prodesak herrialdeko biztanleria indigenekin egiten du lan, batez ere.

Proiektua bost landa-komunitatetan eramango da aurrera. Zona Reina izeneko eskualdean aurkitzen dira.

Zona Reinaren ezaugarri nagusiak pobrezia-maila handiak eta bazterketa dira, nekazari maya q 'eqchi' gehiengo den biztanleriari eragiten diotenak. Egoera horrek batez ere emakumeei eragiten die. Proiektu honek helburu hau du: talde berri bat ahalduntzeko ahaleginekin jarraitzea emakume nekazarien lana sendotuz, autonomia ekonomikorako eta partaidetzarako gaitasunak izan ditzaten, q 'eqchi' kultura maiaren balioak eta praktikak kontuan hartuz. Asmo hau bi alderdi osagarriren bidez lortuko da: bata, nekazaritza-ekoizpen ekologikorako prestakuntza-prozesu bat izango da, elikadura-subiranotasunaren eta maien kulturaren ikuspegiz. Honek hobeagotuko du emakumeen eta familien egoera ekonomikoa. Bi, prestakuntza politiko prozesu batek erraztuko du emakume-lider komunitario talde batek eragin politikorako eta haien eskakizunetarako gaitasunak izatea. Bi prozesu horiek nagusiki q'eqchi' maien hizkuntzan egingo dira.

2000 urtetik aurrera La Salleko Anaien Elkarteak, Proyde-Proega eta Fundación La Sallerekin batera, bere lehentasunen artean Malvinas Argentinas herriari; Argentinako Cordoba Probintzian, hezkuntza zentro bat sortu eta garatzea da, herriko nerabe eta gazteen bigarren mailako hezkuntza bermatzeko.

Gaur egun, herrialdeak duen murrizketarik handienetako bat eskola-azpiegiturarena da. Herri honetan Bigarren Mailako bi ikastetxe publiko daude, baina ez zegoen bat bera ere proiektu hau garatzen den Malvinaseko hirugarren sektorean. Sektoreko familiek beren seme-alabentzako maila honetako ikastetxea eskatzen zuten.

Proiektu honek jarraipena ematen die Eibarko Udalak orain arte finantzaturakoei, eta Bigarren Hezkuntza hau eraikitzeko zortzigarren fasea da; Bigarren Hezkuntzako Hector Valdivielso ikastetxe honetan elektromekanika eta elikadura espezialitateak irakasten dira. Oraingo finantzaketa proiektu honetan, alde batetik, 6 ikasgela eta bainugela sorta eraikitzeko diru-ekarpina eskatu izan da eskola-erantzun ahal izateko. Bestetik, jarduera neutralik ez dagoenez ikastetxeak proposamen pedagogiko kooperatiboak eta diziplinartekoak eskaintzen ditu gazteen partaidetza suspertuz.




Herrialdea: Argentina

Diru laguntza ematen duen erakundea: Eibarko Udala

Proiektua: Inklusioa eta parte hartzea duen eskola eraikiz



Proiektu honi esker, ikasleak prestatzeko erabiltzen diren ekipoak eta teknikak berrituko dira, eta beren sektoreetan erabiltzen diren puntako teknologiak ezagutuko dituzte, zaharkitzea gainditzeko eta bezeroen eta teknikariak biltzeko enpresa potentzialen konfiantza ez galtzeko. Bestalde, CTAP zentro teknikoa laguntzeko eta berritzeko proiektu honek, gainera, sozio-hezkuntza-lana ondo egiteko oztopo izan daitezkeen beste inguruabar batzuei heldu nahi die. CTAPek, horretarako, proiektu honek eskaintzen duen aukera aprobetxatzen du, epe luzearako autosufizientzia eta iraunkortasun plan bat garatuz. Plan horrek, bere sektore profesional teknikoari dagozkion diru-sarrerak sortzen dituzten jardueren bidez, kanpoarekiko mendekotasuna pixkanaka ezabatzea ahalbidetuko dio. Horrela, gazte zaugarriak lan-aukera berrietarako prestatu ahal izango ditu eta hazten doan enpresa-sareari gaitutako teknikari profesionalak eskaini ahal izango dizkio.




Herrialdea: Txad

Diru laguntza ematen duen erakundea:

Andoaingo eta Zumarragako Udala

Proiektua: Profesionalki egoera ahulean dauden gazteak lan-munduan sartzen laguntzea, N'Djamenako Ikaskuntza eta Hobekuntza Zentro Teknikoko tresneria eguneratuz



Proiektuak inplikaturik jarraitzen du Fratelli proiektuarekin, Salletar eta Maristen kongregazioek 2016. urtean Libanon abian jarri zuten proiektuarekin, alegia. Sozio-hezkuntzako proiektua da gerratik ihes egin eta Libanora etorritako siriarrak eta irakiar neska-mutil, gazte eta errefuxiatuen alde.

Programak aurrera jarraitzen du komunitate siriarra eta irakiarra kokatuta dauden lekuetan. Lehen, Libanoko hegoaldeko eskualdean, Rmeileh-n. Komunitate irakiarra Beirut hiriburutik iparraldera dauden auzoetan Bourj Hammoud auzoan.


Herrialdea: Libano

Diru laguntza ematen duen entitatea:

Caritas Bizkaia

Proiektua: Haur eta gazte errefuxiatu siriarrak eta libanoar zaugarrien hezkuntzarako, garapenerako eta integrazioarako sarbidea erraztea eta hobetzea





Herrialdea: Togo

Diru laguntza ematen duen erakundea:

Zarautz eta Zumarragako Udalak

Proiektua: Togoko iparraldeko haurrentzako kalitatezko erabateko Lehen Hezkuntzako programa indartzea, Les Savannes Eskualdeko Landa Eskolen Sareari lagunduz

Zumarragako eta Zarauzko Udalaren finantzaketari esker, arazo larri bati aurre egiten dion proiektu honekin jarraitzen dugu: Sabanetako eskualdean dagoen hezkuntza-baliabide eskasari.

Proiektua 12 hilabetetan gauzatuko da eta Dapaong Elizbarrutiko Eskola Sareko 40 ikastetxetako 11.181 ikasleri (5.143 neska eta 6.038 mutil) mesede egitea du helburu.

Proiektuaren bidez konpondu nahi den arazo nagusia zonaldean hezkuntza mailan dagoen baliabide eskasari aurre egitea da. Horregatik, esku-hartzeak honako hauek izango ditu ardatz:

- Sareko 40 eskolen funtzionamendua babestea, ikastetxeei eskola-materiala, material didaktikoa eta idazkaritzakoa emanaz.
- Eskola-kantinak (eskola-jantokiak) direlakoen jarduera babestea, ikasle askok zerbitzu hori behar dutelako ikasturtearekin aurrera jarraitu ahal izateko.



Herrialdea: Togo

Diru laguntza ematen duen

erakundea: Irungo Udala

Proiektua: Haurren eskubideen babes material ezberdinen erosketaren bitartez.


Irungo Udalaren laguntzarekin, beste bi ekintza zehatz hauei erantzun nahi zaie:

- Sareko eskola batean putzu bat eraikitzea, Tambingue eskolan.
- Sareko zuzendaritzako langileen prestakuntza, zehazki, eskolako 22 zuzendarirena.



Proyde-Proega Fundazioak Akwaba Harrera-etxearen funtzionamendua sostengatzen jarraitzen du. Bere funtsekin eta zenbait erakunderen ekarpenekin, aurten Zumarraga, Irun, eta Zarauzko udaletxeen eta Irungo Caritasen ekarpenekin, Harrera-etxearen funtzionamendu gastuen zati bat bere gain hartzen du eta azpiegituren hobekuntzan ere laguntzen du zentroak zerbitzu hobea eskaini dezan.

Akwaba Etxeak kalean jasotako mutilei eta auzoan eskolatu gabe dauden neska-mutilei, gizarte baztertze arriskuan direnei, aholku eraginkorra, eskolatzeko egokia eta bizi-egitasmoa eskaintzen die, gizarteratzea eta familian integratzea ahalbideratuz. Hiru-lau urtez egon ohi dira egoitzan. Urte horietan familiara berriro itzultzea prestatzen da. Akwaba Harrera-etxeak sare moduan lan egiten jarraitzen du Abidjaneko haurren alde diharduten beste erakundeekin, arrisku egoeren prebentzioan.



Herrialdea: Boli Kosta

Diru laguntza ematen duen

erakundea: Irungo eta Zarauzko

Udalak eta Caritas Irun

Proiektua: Akwabako kaleko haurren

birgizarteratze familiar, sozial eta

laboralean laguntzea



Proiektuak babesa ematen dio Errumaniako Pildesti herrian dagoen "La Salleko san Joan Bautista Lizeo Tekniko"an kalitatezko hezkuntza-finkatzeari, baliabide urriko familietako, gutxienez, 140 ikasleen formazioa bideratuz, Batxilergo tekniko baten oinarriak emanez, ikasleen espezializaziora zuzendua, horrela lanerako prestatuz edo goi-mailako hezkuntzan sartzeko.

Herrialdea: Errumania

Proega beraren funtsak

Proiektua: Kalitatezko bigarren

mailako hezkuntza Pildestiko Lanbide

Eskolan



9

PROIEKTUAK

Gizarte eraldaketarako sentsibilizazioa



9

PROIEKTUAK

Gizarte eraldaketarako sentsibilizazioa

SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUAK ERAKUNDEEN DIRU-LAGUNTZA ETA PROEGAKO FUNTSEKIN

Izenburua	Herrialdea	Diru laguntza eman duen erakundea	Diru-sarrerak (2022)	Xehetasunak	Proiektuaren kostua (GUZTIRA)
Ibilbide iraunkor eta bidezkoak lotuz: Eibar erantzukizunez, berdintasunez eta konpromisoz eraldatuz.	Eibar	Eibarko Udala	4.560,00€	Dirulaguntzaren %80a	6.231,28€
GUZTIRA, 2022ko diru-sarrerak (sentsibilizazio proiektuak)			4.560,00€		

IBILBIDE IRAUNKOR ETA BIDEZKOAK LOTUZ: EIBAR ERANTZUKIZUNEZ, BERDINTASUNEZ ETA KONPROMISOZ ERALDATUZ.

Proiektuaren helburua Eibarko biztanleek Bidezko Merkataritzaren printzipioak barneratzeko prozesuan jarraitzea da, kontsumo arduratsua eguneroko praktika gisa bultzatuz. Ez bakarrik helduengan arreta jarritz, baizik eta eremu horretan haurrak heztearen aldeko apustua eginez, kontsumo arduratsuen, elkartasunaren eta planetaren zaintzaren balio horietan hazteko aukera izan dezaten. Proiektua aurrera eramaten da Egoaizia eta Proyde-Proega GGKEen arteko koordinazioari esker.

Hauk dira egindako jarduerak:

- DBHkoekin baso bainuak
- Sukaldaritza tailerra
- Bidezko Merkataritzako Nazioarteko Eguna



9 PROIEKTUAK

Guztira


MOTAK	FINANTZAKETA
Amaitutako lankidetza proiektuak erakundeen diru-laguntza eta Proegako funtsekin	108.329,66€
Martxan dauden lankidetza proiektuak erakundeen diru-laguntza eta Proega funtsekin	131.135,01€
Lankidetza proiektuak Proegaren funtsekin bakarrik	26.500,00€
Sentsibilizazio proiektuak erakundeen diru-laguntza eta Proegako funtsekin	4.560,00€
GUZTIRA	270.524,67€

10 MEMORIA EKONOMIKOA


Proyde-Proega 2023

FUNTSEN BANAKETA JATORRIAREN ARABERA

- Erakunde publikoak: 215.464,67 €
- Proega beraren funtsak: 129.164,62 €



PROEGA BERAREN FUNTSEN JATORRIA



10 MEMORIA EKONOMIKOA


Proyde-Proega 2023

GASTUEN BANAKETA


 Sentsibilizazioa eta boluntariorza: 14.429,68 €

 Funtzionamendua: 38.797,57 €

 Proiektuen finantzaketa: 270.524,67 €



DIRU SARREREN ARABERAKOA BANAKETA GEOGRAFIKOA - FINANTZATUTAKO PROIEKTUAK -



11 ESK

Erantzukizun Sozial Korporatiboa

Proyde-Proega Fundazioak garapen global solidarioak eskatzen duen lankidetzaren ekonomikorako ildo serio eta eraginkorra eskaintzen die enpresa eta erakundeei. Proiektuak finantzatzeko egiazko globalizazioa burutzen lagundu egiten du, garapen solidarioaren bitartez.



12 ERAGIN POLITIKOA

Proyde-Proega 2023

Azken urte honetan ere esku hartu dugu, Euskadin eta Estatu mailan, gutxi garatutako lurraldeetan pobrezia eragiten duten egiturak aldatzeko egiten diren ekitaldietan. Eskuhartze hau partaide garen koordinakundeetako batzordeen bitartez egin ohi dugu. Azpimarratzekoa Proyde-Proegaren partaidetza Euskadiko GGKEN Koordinakundeak antolatzen duen Jardunaldian, Donostiako Bidezko Merkataritzaren Koordinakundean, Donostiako Pobrezia 0 Plataforman, Zarauzko Solidaritate Koordinakundean eta REDES Bizkaian.



13 HARREMANAK

Beste GGKE batzuekin

Proyde-Proega Fundazioak solidaritate-sare hauetan hartzen du parte:

- ✓ RELEM-eko (Europa, Ekialde Hurbila eta Egipto-Sudan) salletar GGKEen koordinaziorako batzordean
- ✓ ARLEP-eko (Espainia eta Portugal) salletar GGKEen koordinakundean
- ✓ Euskadiko GGKEen Koordinakundean
- ✓ Redes izeneko sarearen Koordinakundean (Garapen Solidariorako Erakundearen Sarea), bereziki Bizkaian
- ✓ Lankidetzeta eta Garapenerako zenbait udal plataformetan (Donostia – Eibar – Zarautz – Bilbo).
- ✓ Euskadiko Pobrezia Zeron
- ✓ Donostiako Bidezko Merkataritzaren Koordinakundean
- ✓ Lotu zaitez justiziaren alde plataforman (Caritas, Manos Unidas, Justizia eta Bakea, Confer eta Redes)
- ✓ Lankidetzeta-hitzarmenak eginak ditu zenbait asoziazio eta GGKEekin (Proyde, Elkarbanatuz, Gipuzkoako Caritas, Bizkaiko Caritas)

14 PUBLIKAZIOAK

Sustatu 28

Apirilean argitaratu zen Sustatu triptikoaren 28. zk., euskaraz eta gaztelaniaz, 2022ko Memoria Labur gisa. Ale gutxi batzuk bakarrik inprimatu ziren, hizkuntza bakoitzean. Izan ere, bidalketa web orriaren bitartez egiten zaie Gipuzkoa eta Bizkaiko La Salle Ikastetxeetako familiei eta Fundazioko boluntario, lankide eta partaideei.

Triptikoan 2022ean finantzatutako garapenerako lankidetza proiektuen taula laburra ageri da eta urteko memoria ekonomikoa. Zenbait lankidetza- eta larrialdi-proiektuen informazioa ematen da. Baita sentsibilizazio-kanpainari eta udako boluntariotzari eta bidezko merkataritzari buruzkoak ere. Gainera, bazkide egin edo dohaintzaren bat emateko bolante bat ere badakar.

MEMORIA LABURRA
2022



SUSTATU 28



PROYDE-PROEGA

Toki xume askotan jende xume askok gauza xume asko eginez, mundua alda dezake

www.proyde-proega.org

Proye-Proega Fundazioa @Proye_Proega 616 539 356

La Salle

Madalena Jauregiberri, 2
20014 DONOSTIA
Lege-gordailu zk.: SS-743/99

LANKIDETZA PROIEKTUAK

LANDA EREMUKO MAYA Q 'EQCHI' EMAKUMEEN AHALDUNTZE EKONOMIKO ETA POLITIKOIA ZONA REINA-N
Guatemala

Proye-Proegak urteki daramatza Guatemalako Prodesa elkartearen hezkuntza proiektuetan laguntzen. Proiektua bost lands-komunitatetan eramango da aurrera. Zona Reina izeneko eskualdean aurkitzen dira.

Zona Reinaren etzugarri nagusiak pobrezia-maila handiak eta bazterketa dira, nekazari maya q 'eqchi' gehiengo den biztanleriari eragiten dietenak. Egona horrek batez ere emakumeei eragiten die. Proiektu honek helburu hau du: talde berri bat ahalduntzeko ahaleginekin jarraitzea emakume nekazarien lana sendotuz, autonomia ekonomikorako eta partaidetzarako gaitasunak izan ditzaten.

Nekazaritza-ekoizpen ekologikorako prestakuntza-prozesu baten eta prestakuntza politikoko prozesu baten bitartez egingo da. Emakume-lider komunitario talde batek eragin politikorako eta haien eskakizunetarako gaitasunak izatea ahalbidetuz.



HAURRENTZAKO KALITATEZKO LH-KO PROGRAMA INDARTZEA, LANDA ESKOLEN SAREARI LAGUNDUZ
Togo

Arazo larri bati aurre egiten dion proiektu honekin jarraitzen dugu: Sabanetako eskualdean dagoen hezkuntza-baliabide eskasari, Alde batetik, Sareko 40 eskolen funtzionamendua babestea bilatzen du, ikastetxei eskola-materialia, material didaktikoa eta idazkaritzakoa emanaz; eta eskola-jantokiak babestea, ikasle askok berbitzu hori behar dutelako ikasturtearekin aurrera jarraitu ahal izateko. Bestetik, Sareko eskola batean putzu bat eraikiko da Tambinguen eta Sareko zuzendaritzako 22 langileen prestakuntza sustatuko da.




LARRIALDI PROIEKTUAK

Ukraina

Ukrainako gerrari erantzunez, Kristau Eskoletako Anaien Institutuak, Fondazione De La Salle Solidarietà Internazionale ONLUS delakoaren bitartez, "LaSalleForUkrainians" ekimena abiarazi zuen 2022ko martxoan. Kanpainak kontzientzia soziala sortu zuen saretarrok munduan, eta larrialdiko ekintza humanitarioak laguntza finantzerio eman zien herri ahuletan gerrak eragindako pertsona eta gizarteak.

Proye-Proegak kanpainan parte hartu zuen La Salleko gainerako GGGekin eta erakundeekin batera.



SENSIBILIZAZIO PROIEKTUAK
BIDEZKO MERRKATARITZA SUSTATZEN

Eibar

Proiektuaren helburua Eibarko biztanleek Bidezko Merkataritzaren printzipioak bideratzeko prozesuan jarraitzea da, kontsumo arduratsua eguneroko praktika gisa bultzatuz. Ez bakarrik helduengan arreta jarri, baizik eta eremu horretan haurrak heztearen aldeko apustua eginez, kontsumo arduratsuen, elkartasunaren eta planetaren zaintzaren balio honetan hazteko aukera izan dezaten.

Proiektua aurrera eramaten da Egozia eta Proye-Proega GGGEn arteko koordinazioari esker.

Hauetara gainera jarduerak: Lehen Hezkuntzako tailerra, Haur Hezkuntzako tailerra, Sukaldaritza tailerra, Bidezko Merkataritzako Nazioarteko Eguna.



14 PUBLIKAZIOAK

Gabonetako postalak

Urteroko legez, Gabonetako Postalen Kanpaina egin dugu. Horretarako hainbat salletar artistei marrazkiak eginarazi dizkiegu eta salmenta bideratu izan dugu. Eskola bakoitzari eskaini eta postal bakoitzetik kopuru zehatza eskatu ahal izan du.

Hau honela, aurten, 5.875 postal saldu ditugu.

Behaldean ikus daitezke aukeratutakoak, koloretsuak eta esanguratsuak. Bestalde, Proegako bazkide direnei ere bidali diegu postal bana Gabonak zoriontzeko.

